

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko irailak 26 · 1367 zenbakia



PELLO RUBIORI AITORTZA

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**



osasun gida

Dentistak

Kolapale 104, 2008722

Amaia & Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 14- 3.º esk. Eibar
943 20 72 17 / 688 43 28 08
amaiaesnaolaodontologia.com

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 95 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / RADI
Ortodontzia / Implantak / Laser Teknologia

RS Hortz Klinika
Jose Usen Rodriguez
Montero DOKTORIA

LARRIALDIK
ERE LANTZEN OTUGU

CLINICA DENTAL Y
MEDICINA ESTETICA RD 603 48 90 18 / SAN JUAN, 7

arat.
DENTAL CLINIC - CLINICA DENTAL

ZURE
IRIBARRE
ONENA

Toribio Etxebarria Kalea, 2
20600 Eibar
943 206 851
www.aratklinika.com

IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Thosa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
108 kolegiatu zila.

- ENDOTERAPIA
- KIBOT, LESIOAK
- Puntzio erret TULIZERENAL
- A. erret + DEPRISIONAL

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ARRAGUETA, 20
TEL: 943 53 04 42
ane.mendia@hotmail.com

masajeak eta
tratamenduak

FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBARRIA
1089 kolegiatu zila.

I. Ojanguen, 2 678 746 617

Ginekologia

Dra. Laura Martinez  Dr. Alejandro Recas

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetria
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
KPS 7079

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702886

Odontologia
Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85



BISTA·EDER
Hortz Klinika · Clínica Dental

 **T: 943 70 00 82**

Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



943-206776

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Zapatuan, ...eta kitto! Jaia ospatuko dugu Eibarren. Goizetik iluntzera arte Untzagan elkartuko gara sagardoa dastatu, sagar-zukua egin, txorizoa eta gazta jan, musikarekin dantzatu eta, batez ere, euskaraz gozatzeko. Bertan, euskararen alde herrian hainbeste lan egin duen Aintzane Agirrebeña omenduko dugu.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Irune

Jaio, Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Irune Jaio

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Yanire Sagredo

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria





Haurreskolen inguruan

Atzo, irailak 22, Eiberrin irakurri nuen "Abendutik aurrera, Eibarren haurreskolako 41 plaza gehiago egongo dira 0-2 urte bitarteko umeentzat". Albiste ona, baina arretaz hartu beharrekoa.

Izenburua irakurritz, ematen du abenduan gure seme-alabek bertan egoteko aukera izango dutela, baina ez da egia, obrek 10 aste iraungo baitute. Beraz, gaur hasiko balira, abenduaren 2an bukatuko lituzkete. Ondoren, partzuergoak "hartuko du bere gain lokalak ekipatzea eta martxan jartzea". Martxan jartze horretan, matrikulak egiteko epea kontuan hartzen dela eta gure umeek haurreskoletan sartzeko aukera izango dutela ulertzen da. Izan ere, albiste honek obrei bakarrik egiten baitie erreferentzia. Gainera, zer logika dauka 2-3 asteko egokitzapena egin eta gabonetako oporretara joateak?

Gaur egungo plazen inguruan "Orbeako zentroa beteta dagoen arren, bai Andra Mariko haurreskolan, bai Amañakoan oraindik ere badago plazarik, eta horrek egungo eskaerari erantzun ahal izatea dakar" dio albisteak. Irailaren 19an haurreskoletan zuzenean galdetuta, Orbean 2 plaza zeuden eta 4 matrikula jasota, Urkin 2 plaza eta 4 eskaera, Amañan 2 plaza eta 3 eskaera. Egoera hau izanik, urtarillera arte familion beharrak asetuta daudela baieztatu daiteke? Eustaten arabera 2024an 157 ume jaio ziren eta hiru haurreskolen artean 109 plaza daude 0 eta 2 urte bitarteko ume guztientzat. Zein da jaiotzen diren eta haurreskoletan inskribatzen diren umeen arteko proportzioa? 41 plaza horiek nahikoa izango al dira Eibarko familion beharretarako? Hasieran pozgarria zena, testua irakurri eta datuak kontrastatu ostean, guztiz zalantzarik da.

Horregatik, mesedez, utzi hitzekin jolasteari, erantzukizuna hartu eta datak zehaztu, familiok egunerokotasuna kudeatzeko eta kontziliazioa lortzeko aukera izan dezagun.

David Suárez

Haur-hezkuntzako etapan dauden umeen aisialdirako gune estali bat egokitzeko eskaera

Lehenik eta behin, gure burua aurkeztuko dugu, hau da, Legarre eta Amaña auzoetako guraso talde bat gara. Begi bistakoa da uda amaitzeaz dagoela eta dagoeneko eguraldiak okerrera egin duela nabarmen. Badugu eskuartean ezinegon sortzen digun gai bat, hain zuzen, eguraldi txarra egiten duen egun horietan aisialdiko momentuak non igaro gure hurrekin (haur-hezkuntzako etapako ume txikiek ari gara hizketan). Eibarren, zoritxarrez, estalitako guneen kopurua oso urria da; beraz, horrelako egunetan etxetik atera nahi dugunean nora joan ezin jakinda aurkitzen gara gure herrian. Ondorioz, gure txikiek babesean eta berotasunean jolastu ahal izateko, horretara egokitutako espazioak dituzten inguruko herrietara joatera behartuta gaude.

Hori dela eta, Udalarentzat gure eskaera honakoa litzateke: eskatuko genizuke, mesedez, aisialdian aritu ahal izateko estalitako guneren bat eskaini edota egokitu ahal izatea. Guretzat oso garrantzitsua den zerbait da, eta seguru gure egoera berean aurkitzen diren beste hainbat guraso ere badaudela; hortaz, asko eskertuko genizuke gure eskaerari behar duen arreta eskaini eta irtenbide bat emateaz arduratzea.

Legarre eta Amañako guraso taldea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

- PIONTZA** → Pioien lana. "Piontzia, lan gogorra, hala be udako beruetan".
- PIONTZAN EGIN / JARDUN** → "Gerria galdu genduanian, makiñatxo bat eskolari jakittun eta dotorek piontzan jardun bihar izan eben".
- PIPAR** → *Capsicum annuum* landarearen fruitua. Gaztelerazko 'pimiento, chile'. "Berrizko piparren lakorik ez da inguruan".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 26
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
ZAPATUA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 29
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 30
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUAZTENA 1
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 2
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 3
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ BETI, 2025ean, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Ana M^a Garcia Fernandez. 2025-IX-19.
- M^a Consolacion ("Txelo") Ayala Ocariz. 80 urte. 2025-IX-20.



Euskadiko Vending Profesionalen Jardunaldia hartuko du Debararrenak

Euskadiko Vending Profesionalen Jardunaldiaren XXIII. edizioa hartuko du Debararrenak urriaren 2an ta 3an. EVE elkartearen eskutik urtero egiten den topaketa hau sektorerako erreferentziazko gune bihurtu da. Urteroko topaketa hauek eginda, vending sektoreko profesionalen arteko loturak indartzea eta prestakuntza sustatzea bilatzen dute antolatzaileek. Adierazi dutenez, “aurtengo jardunaldiak eskualdeko ondare industrial aberatsari hurbiltzeko aukera emango die parte-hartzaileei”. Lehen egunean Elgoibarko

Makina-Erreminta Museora, IMH Campusera eta Lizagasar sagartokira bisita egingo da, baita Deban bisita gidatua ere. Eta bigarren egunean, elkarteko zerbitzuei eta sektoreko prestakuntzari buruzko mahai-ingurua egingo da. Horrekin batera, Eibarko Armeria Eskolara bisita egingo dute, eta “Ekintzailatza, moldagarritasuna eta oztopak gainditzea: pertsonak eta heziketa balioan jarritz” izenburuko hitzaldia ere egingo da. Jardunaldia networking-luntx batekin amaituko da, Armeria Eskolan bertan.

Lapurretak egin izanaren susmagarri bi atxilotu zituzten zapatu goizaldean

Eibarko Udaltzaingoak izandako erreakzio azkarrari esker, zapatu gauean lapurretak bat saihestu zela jakinarazi du aste honetan Eibarko Udalak. Azaldutakoaren arabera, “zapatuan, goizaldeko 04:30ean, agenteek lapurretak eta ebasketak egin izanaren susmagarri bi harrapatu, identifika-

tu eta erregistratu egin zituzten”. Ertzaintzarekin batera egindako operatiboan, susmagarriak atxilotu egin zituzten, indarra erabiltuta lapurretak egitea leporatuta, eta lapurtutako bizikleta bat berreskuratu zen”. Atxilotuetako bat kartzelara sartu dutela jakinarazi dute.



1970. urtean jaiotakoen kinto-jaia urriaren 11n

Aurten 55 urte egin edo egingo dutenek, urriaren 11n ospatuko dute euren kinto-eguna, eta izena emateko azken eguna domeka, irailak 28, izango da. Horretarako 100 euro ingresatu beharko dira honako kontu honetan: ES07 3035 0209 91 2090020522 (izen-abizenak argi azaldu). Argazkia egin eta zapiak eta tiketak banatzeko Untzaga plazan elkartuko dira 12:30ean. Piskolabisa 13:00ean izango da, Ongi Etorrin, eta bazkaria Untzaga Plazan hotelean izango dute 14:30etik aurrera. Arratsaldean ere jaiak jarraituko du.



65 urte dituztenen jaia urriaren 25ean

Urriaren 25ean ospatuko dute kinto-jaia 1960. urtean jaiotakoek. Elkarteko hitzordua 12:30erako egin dute, Untzaga plazan. Izena emateko, 90 euro sartu behar dira kontu korronte honetan: ES28 2095 5035 09 1063886013. Transferentzia egiterakoan izen-abizenak jartzeko eskaera egin dute antolatzaileek.



Eibarren bi haurreskola berri zabaltzeko lanak abendurako amaitzea espero dute

Udalak jakinarazi duenez, bi haurreskola berri jarriko dira martxan Eibarren, horrela 0-2 urteko haurrentzat 41 plaza gehiago eskaini ahal izateko. Haurreskolen Partzuergoko datuen arabera, gaur egun Orbeako zentroa beteta dago, baina Arrateko Andra Marikoan eta Amañan oraindik ere badago plaza. Hala ere, Partzuergoak irailean erregistraturiko zerrendan argi dio “datuak ez direla behin betikoak, gela tipologiek nahiz

eskaintzen diren plaza kopuruek aldaketak jasan ditzaketela, haurren bajak eta izen-emate garaian jasotzen den izen-emate kopurua kontutan izanik”. Haurreskola bien lanak Zamakoa SA enpresari esleitu zaizkio, 500.396 euroko aurrekontuarekin, eta abenduan amaitzea espero dute. Haurreskola berriak Jazinto Olaben, udal ludotekaren ondoan, eta Blas Etxeberrian, Casco eraikinaren beheko solairuan egongo dira.

'Txakurrak Uretara' jaia egingo da kanpoko igerilekuetan urriaren 11n

Udalak eta Marcan Huella elkar-teak “Txakurrak Uretara” jaia antolatatu dute. Egitasmoa urriaren 11n (zapatua) egingo da, Eibarko kanpoko igerilekuetan. Hain zuzen ere, ura kendu eta belarra aldatu ostean, hilaren 28an itxiko dute igerilekua. Garbiketa lana egingo dela aprobetxatuz, Udalaren ekimenez, txakurrek eta jabeek ongi pasatzeko jaia antolatatu dute. Marcan Huella elkartearen postua ere egongo da, eta pintxoak eta freskagarriak eskainiko dituzte bertan. Sarre-ra dohainik izango da. Informazio gehiago nahi duenak 635 739 507 telefono zenbakira deitu dezake, edo marcanhuella@gmail.com helbidera mezua idatzi.



BARIXAKUAK JOLASIAN, BUELTAN DA!

Irailak 26: Txaltxa Zelain
Urriak 3: Torrekuako parkean
Urriak 10: Urkizuko parkean

17:00-18:00

*Umeentzat
jolasak doan*





Eibarko taldeen kontzertuak izango dira protagonista Ipurua auzoko jaietan

Asteburu honetan ospatuko dira Ipurua auzoko jaiak, eta horretarako egitarau bete-betea prestatu dute jai batzordekoek. Gaur, 19:00etan, trikopoteoa egingo da auzoko tabernetan, eta jaien hasierako txupinazoa 20:15ean botako dute. Gauean, herriko musikariek hartuko dute auzoa: 20:30ean, CV (Caballos de Vapor) taldearen kontzertua hasiko da; 21:45ean, Mugi Panderoa erromeria taldearena; eta, gauerditik aurrera, DJ Gorku eta Beato arituko dira.

Bihar (irailak 27, zapatua) goizean goizetik hasiko dute eguna,

mendi-bueltarekin, eta gaueko kontzertuen aurretik era guztietako jarduerak egongo dira: salda eta txorizoa, herri-kirolak, bazkaria, bingo musikatua, umeentzako tailerrak... Eta, bezperan bezala, Eibarko taldeek girotuko dute gaua: Urkari (22:00etan) eta EH Sukarra (23:30ean) taldeek joko dute, eta ondoren DJ-ak egongo dira. Domakako jarduerak goiz-eguerdian izango dira: igel-toka txapelketa, arku-tiro tailerra, Kaxa-ren dantza erakustaldia eta Ainhua Arroitzak girotutako bermutada egingo dira, besteak beste.

Urrian egingo den Gerrako Fronteko bisitarako izen-ematea zabalik dago

Gerrako Fronteko bisita gidatuen beste saio bat antolatu dute urriaren 5erako (domeka). Egun horretako bisita euskaraz egingo dute, 11:00etatik 14:00etara, Arrateko Gerra Zibileko Interpretazio Zentrotik hasita. Beti bezala, Arrate inguruan mendi ibilbidea egingo du taldeak, gerrako fronteari buruzko azalpenak entzuten dituen bitartean. Egun horretan Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa 10:00etatik 11:00etara zabalduko dute. Bisita dohainik da, baina aurretik izena eman beharra dago, Udalaren webgunean dagoen formularioa beteta (urriaren 1ean amaituko da horretarako epea). Informazio gehiagorako www.gerrazibilaeibarren.eus helbidean begiratu.



Domekan ospatuko dituzte San Migel jaiak Aginaga auzokoek

Domekan, San Migel egunaren bezperan ospatuko dituzte jaiak Aginaga auzokoek. Meza Nagusiarekin hasiko da egitaraua, 11:00etan. Urtero bezala, San Andres parrokiako abesbatzak hartuko du parte eta, besteak beste, San Migeli eskainitako himnoa abestuko dute koruko kideek. Meza amaitu eta, jarraian, eguerdian hasiko

dira hamarretakoa eta umeendako jolasak. Bazkaltzeko, berriz, urteroko paella-jan herrikoia antolatu dute jai batzordekoek. Eta, arratsaldean, Joselu Anaiak taldearen eskutik erromeria egingo da, 17:00etatik 20:00etara. Ohiturari jarraituta, San Migel elizako kanpaiak iraulita agurtuko dute eguna.



Nagusien eskubideen aldeko manifestazioa deitu dute

Pertsona nagusien eskubideen aldeko manifestazioa deitu dute urriaren 4rako AGIJUPENS (Erretiratu eta Pentsiodunen Gizarte Zentroen Gipuzkoako Federazioa), Eibarko Duintasuna, Eibarko Pentsionisten Taldea, Eibarko Emakume Pentsionistak, Berrarmatzearen Aurkako Intsumisoak, Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik ez elkarte eta

taldetako ordezkariak. Mobilizazioa 12:00etan abiatuko da Untzagatik, eta ondoren, 14:30ean, herri-bazkaria egingo da, udaletxeko arkupeetan (tiketak 15 eurotan jarri dira salgai Guridi tabernan).

Martitzen arratsaldean bilera egin zuten Untzaga gizarte zentroan, mobilizazioa antolatu eta herritarrei dei egiteko. Horrekin batera, egun horretarako alda-

rrikapenak adostu zituzten: pentsioetan genero-arrakalarik ez egotea; gutxieneko pentsioa lanbideen arteko gutxieneko soldataren parekoa izatea; kalitatezko osansungintza publikoa; gerrarik ez egotea; eta gastu militarrek Gizarte Zerbitzuetara bideratzea. Agerraldian esan zuten, “gure ahotsa altxatu nahi dugu, prekarietatearen eta bidegabekeria sozialaren aurka. Konformismo faltu hori hautsi eta herritar guztiak urriaren 4an egingo den manifestazioan parte hartzera deitzen ditugu”.

Berbetan Jaialdia bertan behera laga behar izan zuten eguraldi txarragatik

Martitzenean egitekoa zen ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Berbetan jaialdia, mintzapraktika-programaren ikasturtea horrela hasten baitu urtero elkarteak, baina hasi eta hamar minutura euria hasi zuen eta bertan behera utzi behar izan zen DJ Mitxelek gidatutako Disko Arima musika festa. Dena dela, ikuskizuna beste egun batean egingo dela esan dute euskara elkartetik.

Berbetan mintzapraktika programa eta haren aldaerak eibartarrei azaltzeko aprobetxatzen du jaialdi eguna ...eta kitto!k. Martxan dira honezkero hirurak, eta izena ere edozein momentutan eman daiteke, bulegora joanda (Urkizu 11, solairuartera) edo telefonoz deituta (943200918).



Serigrafiaren eta adiskidetasunaren moda

‘Bi ta piku’ hiru lagun dira, Jone Bengoa Urizar, Marta Marina Larrañaga eta Uxue Igarza Loiola, baina askotan hirurak ez daudenez, horregatik dira ‘Bi ta piku’. Hau ez da matematikako problema bat, horrela esan digute euren. Lagunak dira, eta baita sortzaileak ere, eta elkarrekin denbora libre besterik modu batean pasatzeko (besteak beste) sortu dute ‘Bi ta piku’, serigrafia modan bihurtzen duen marka.



Gurekin egoteko bai izan dira hiru eta Zezenbide kaleko 6. zenbakian duten lokalean elkartu gara ‘Bi ta piku’-ri buruz berba egiteko. “Hirurak elkartzen saiatzen gara eta astero momenturen batean elkartzea lortzen dugu. Gainera, gauza asko ditugu komentatzeko eta komeni da elkartzea, baina normalean bi ta piku izaten gara”, kontatu digu Jonek.

Hirurek dute beste ogibide bat ‘Bi ta piku’-tik kanpo eta aisialdian garatzen dute sorkuntza proiektu hau. Hain zuzen ere, aisialdiaren kontzeptuak garrantzia handia izan du ‘Bi ta piku’-ren sorkuntzan. “Argi ikusi genuen gure aisialdiaz goatzeko beste aukera bat zela. Gaur egun aisialdia kontsumora oso bideratuta dago eta gure sormenaz goatzeko nahi genuen”, Uxueren berbetan. Beraz, proiektuak lana eskatzen duen arren, ez zaie asko kostatzen bertan elkartzea eta aritzea, “gozatu egiten dugulako”.

Euren buruari ez diote presio handirik jartzen proiektua garatzeko orduan, baina saiatzen dira maiztasun jakin batean elkartzen, eta laneko eta aisialdiko momentuak banatzen. “Lana egitera etortzen saiatzen gara hona gatozenean, baina batzuetan kostatu egiten zaigu”, aitortzen digu Marinak. “Noski, lanean gabiltzanean gure bizitzen eguneraketa egiten diogu elkarri”.



Udazkenera begira diseinu eta produktu berriak sortuko dituztela aurreratu digu hirukoteak. BI TA PIKU

gehitzen du Jonek. “Egunak daude, batzuetan zaila izaten da zentratzea”, amaitzen du Uxuek.

Diseinu eta produktu berriak

Lagunen arteko kontua izanik, giro paregabean garatzen dute proiektua, baina horrelako zerbait ez da “jiji-jaja” bakarrik irteten. Horren atzetik lan, talentu eta jakintza handia dago. Horretarako, asko ikasi behar izan dute euren kabuz. “Hasieran, Jonek gehiago kontrolatzen zuen, lehenagotik ibili delako horrelako gauzak egiten”, esan digu Martak, baina gaur egun hirurek egiten dute denetik. “Gogoen arabera funtzionatzen dugu”, diosku. Hau da, batzuetan batek hartzen du ardura bat, hurrengo batean beste gauza bat egiten du... Bakoitzak duen denboraren eta nahien arabera.

Funtzionamendu horrekin, hirurek garatu dituzte gaitasunak eta etengabe ikasten dihardute. “Horrek motibatu egiten gaitu”, diosku Jonek, eta gauza berriak lantzeko eta probatzeko gogoz daude.

Bidean, gainera, proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren makinak, tresnak, margoak eta bestelakoak eskuratu behar izan dituzte, lokala lortu eta atondu... “Gauza asko pentsatu gabe egiten ditugu. Asko pentsatuz gero, azkenean ez duzu egiten, ikusten duzulako gauza handi batean sartu zarela eta zure buruari galdetzen diozulako zer zauden egiten hor”, azaldu digu Jonek.

Asmoa izan zutenetik proiektua martxan jarri arte denbora pasa zen, baina poliki-poliki joan dira beharrak asetzen, tresnak egokitzen, materiala lortzen (kotoi organikoazko kamisetak dira), diseinuak egiten, akatsetatik ikasten eta gauza berriak probatzen.

Aisialdia elkarrekin pasatzeko eta sorkuntza lantzeko asmoz sortu zuen hirukoteak 'Bi ta piku' proiektua

BIDEOA





“Gure kuttunetako bat ‘Arragueta kalia’ kantuari eskainitako kamiseta da, pentsatzen genuelako gizartearen arauen kontra egiten duten emakume eibartarrek merezi zutela diseinu bat”



Euren sorkuntzak kalean ikusteak ilusioa egiten dio hirukote eibartarrari. BITAPIKU

Kamiseten bilduma batzuk sortu dituzte orain arte eta telazko poltsa bat ere badute salgai. Orain, “badatoz gauzatxoak”, dio Jonek barrezka. “Udazkena datorrenez, jertseak-eta egiteko asmoa dugu. Diseinu eta produktu berriak”, aurreratzen digute.

Azoka urriaren 3an

Salmenta egiteko, modu ezberdinak erabiltzen ditu ‘Bi ta piku’-k. Batetik, www.bitapiku.com webgunearen bitartez erosi daitezke euren produktuak. Horretarako, sare sozialek demaseko papera jokatzeko dute (@bitapiku_ Instagramen), euren produktuen erakusleirio direlako. “Bestalde, jendeak kalean kamisetak edo poltsa eramateak ere asko egiten du. Agian norbaitek ikusten du eta gustatu egiten zaio”, Joneren ustez.

Batez ere Eibarren eta Euskal Herrian saltzen dituzte produktuak, baina Madrildik eta beste toki batzuetatik ere iritsi zaizkie eskariak. “Pentsatzen dugu euskaldunak direla, gure mezuak ulertzen badituzte...”, dio Uxuek. Izan ere, diseinuak berebiziko garrantzia du ‘Bi ta piku’-n, baina baita mezuak ere. “Kasu batzuetan nahi ditugun mezuak helarazten saiatzen gara, diseinu batzuek mezurik eduki ez arren. Adibidez, gure kuttunetako bat ‘Arragueta kalia’ kantuari eskainitako kamiseta da, feminismitik gatzelako eta pentsatzen genuelako gizartearen arauen kontra egiten duten emakume eibartarrek merezi zutela diseinu bat”, Uxueren berbetan.

Beste alde batetik, salmentak egiteko zenbait azokatan ere izan dira eta Gabonak bitartean hainbatetan egongo dira. Horrekin lotuta, eta iaz auzokideen aurrean euren burua aurkezteko prestatutako ekintzari nolabaiteko jarraipena emanez, urriaren 3an, barixakua, 18:00etan, azoka jarriko dute euren lokalaren parean. Bertan, euren lokalak partekatzen duten Maialen Aizpurua diseinatzaile multimedia eta belarritakoak egiten dituen Gigil Desing proiektuko Laura Albistegi egongo dira.

Aisialdiaz elkarrekin eta sorkuntzaren bitartez gozatea, eta elkartzeko aitzakia edukitzea da hiru lagun asmoa proiektu honekin, baina produktuak saltzen dituzten neurrian, ongi-etorria izan dadila salmenta. “Honekin diru apur bat ateratzen badugu eta horrekin bidaiatxo bat egin badezakegu, bikain”, aitortzen digu Uxuek. Bidaia bat baino, hobe izan daitezela bi eta piku.



ARRATE HOMES

Eibarko zure etxebizitza berriak

SARIA DU!





Orain bakarrik, Arrate Homes-en zure etxebizitza berria eskuratuz gero,

▶ **3.000€**-ko

El Corte Inglés-eko opari-bartela emango dizugu

*Guztira 3.000€-ko jarduera

Obra berriko etxebizitzak:
Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua



900 11 00 22 • neinorhomes.com

Eibarko PROFESIO LIBERALAK

ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4, 3 D lokala
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70
abogada@martavalera.es

AHOLKULARIAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.com
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

“Pello Rubiori, Txillarreko ‘sukaldaria’-ri, aitortza egin nahi izan diogu”

EDURNE SAN MARTIN eta ASIER IBAIBARRIAGA •
‘Txillarreko sukaldaria’ liburua eta ikus-entzunezkoa



Giro politikoa, atxiloketak, ilegalizazioak, atentatuak... Oso urte nahasia izan zen 1999a. Pello Rubioren rola eta, gatazka politiko bete-betean, bere etxean, Txillarre baserrian, egindako bileren kokagune historikoa uztartzen ditu ‘Txillarreko sukaldaria’ liburu eta ikus-entzunezkoak. Pellok ez zuen sukalde-ardura soil bat izan, baizik eta gatazkan bitartekari eta elkarbizitzarako gunea eskaini zuen figura izan zen.

BIDEOA



Txillarre baserria Elgoibarren kokatuta dago, Sallobente ibarreko ingurunean. Pello Rubio sindikalista ohiaren baserria gatazka politikoari buruz elkarrizketak egiteko espazio bilakatu zen 1999an. Isilpean, Pelloren lagunak ziren Jesus Eguiguren (PSE-EE) eta Arnaldo Otegi (Herri Batasuna) gonbidatu gisa. Etxea eta otordua eskainiz, elkar ulertzeko gunea bilakatu zuen etxeko sukalde Pellok. Presoez nahiz atentatuez, gatazkaz eta horren aterabideaz hitz egin zuten bertan, besteak beste. Orain, bilerak egin zirenetik bi hamarkada pasa ostean, haren bizipenak liburu eta ikus-entzunezko batean jaso dituzte Asier Ibaibarraia Apoitak eta Edurne San Martin Larrañagak.

Kokatu gaitezen. Zer da edo zein da ‘Txillarreko sukaldaria’?

Edurne: Pello Rubio da ‘Txillarreko sukaldaria’. Bera jarri nahi izan dugu fokuari azpian. Arnaldo Otegi, Jesus Eguiguren, bake prozesu baten hasiera (horrek dakarren guztiarekin)... Ez da hausnarketa politiko bat. Ikuspuntu politiko hori egin dute jada Otegi edo

Eguigurenek, adibidez. Guretzat inportantea izan da Pello protagonista izatea. Jakin nahi izan dugu zergatik Pello Rubio Txillarre baserriko baserritar batek erabakitzen duen goi mailako politikako saltsa honetan sartzea. Lasai asko bizi zitekeen bere ortuan eta bere baserrian, baina bat-batean hau guztia aurrera eramateko konpromisoa hartu zuen. Hori da bai liburua eta bai dokumentala: Pello Rubio da. Bake prozesua hor dago, ikuspuntu politikoak hor daude, baina esan genezake Pelloren biografia dela.

Asier: Guk gidoia egin genuenean ere horrela izan zen. Bera zumaiarra da jaiotzez, militantzia politikoa ere badu, eta hori kontatzen du. Bere ibilbidea, nola etortzen den Eibarrera, nola enpresa bat kudeatzea tokatu zitzaion, nola egiten zituen baserriko gauza guztiak, ze orain jubilatuta dago baina gaur egun baserritik bizi da. Orduan, Edurnek esan duena: zentratu gara beregan. Pellok nola erabakitzen duen bi munduak elkartzea. Azkenean, gaztaroan izan zuen ibilbide politiko bat. Bertan ezagutu zuen Arnaldo. Ezagutzen zuen baita Paco Egea ere, lanetik. 1999an zegoen giro politikoa,



ilegalizazioak zeuden, atxilotetak, atentatuak... Oso garai nahasiak ziren eta hor erabakitzen du berak biei gonbita egitea eta elkartzea. Horrek erakarpen bat sortzen zigun: nola bizi zuen, zein zen bere papera mahai horretan, eta gero, mahai horrek izan duen eboluzioa denboran. Zeren eta gero horrek izan zuen eboluzio bat denboran, Oslon amaitzen dira negoziaketak, baina hori horretara iritsi bitartean eduki zituen bizipenak, berak zein lan egiten zuen baserri horretan...

Noiz sortu zen Pelloren bizipenak jasotzeko ideia?

E: Ideia Arrateko zelaian sortu zen iaz. Herri-bazkarian geunden, nik ez nuen Pello ezagutzen eta bere alboan bazkaltzea tokatu zitzaidan. Bazkalosteko konbertsazioan hasi zen anekdota batzuk kontatzen. Gainera, gogoratzen dut Arrate eguna zela eta esan zuela “gaur dira ez dakit zenbat urte Zapatero gure etxean bazkaltzen egon zela. Eskoltak eta guzti etorri ziren etxera!”. Bere kontakizunak azaltzen zebilela, esan nion: “Pello, hau ezin duzu zuretzako bakarrik gorde, hau kontatu beharko litzateke”. Eta erantzuna izan zen: “Nik ez dut egingo, baina norbaitek egiten

baldin badu...”. Horrela geratu zen kontua. Iluntze hartan ...eta kitto!-k antolatzen duen Arrateko bertso-afarian Asierrekin elkartu nintzen. Dena azaldu nion, baita jasotako informazioarekin zerbait egingo nukeela ere. Baina ez bakarrik, noski. Asierrek berak proposatu zidan proiektua bion artean sortzea. Eta horrela sortu zen ideia.

Nondik abiatu zenuten proiektua?

E: Nik argi neukan liburu bat edo liburuxka bat sortu nahi nuela. Asierrek, berriz, liburuaz gain, ikus-entzunezko bat egin beharra ikusi zuen.

A: Testua irakurtzen da, baina ikus-entzunezkoak nagusi diren mundu honetan produktu falta ikusi nuen. Beraz, Pellorekin elkartu eta grabaketak egin ostean zer egin erabakitzea proposatu nuen. Hori bai, hiru bazkari egin genituen aurretik Pellorekin konfiantza hartzeko. Finean, badira gauza oso pertsonalak, bere bizipenak dira. Pellok eskubidea du gauza batzuk kontatzeko eta beste batzuk ez. Horrelako harreman sano bat, konfiantza gune bat lortu eta hortik abiatu ginen. Gainera, egiten genuen guztia partekatu izan



“Erraza izan da. Pellorekin pare bat alditan elkartu ginen, konfiantza sortu eta lanari forma emateko”

“Pellok bere txikitasunetik eskaini zuen baserria eta oso emankorra izan den proiektua hasi zuen”

dugu berarekin. Goiz batean grabatu genuen guztia, kamera profesionalekin. Hiru orduko jarduna izan zen, eta guk ez genuen ia galderarik egin. Aurrez, gidoi bat pasa genion Pellori, baina berak jada bazuen gertaeren inguruko informazioa jasota.

E: Monologo bat izan zen. Aipatu behar dugu, gainera, Pello oso hizlari ona dela. Oso ondo azaltzen ditu gauzak, pasioz.

Pellok bazuen beharra hitz egiteko?

E: Ez dut argi. Noizbait inork proposatu bazion... Agian ez zitzaion burutik pasako. Hala ere, nik uste dut egin ostean oso gustura gelditu dela. Eta, batez ere, baloratua sentitu dela. Horrek balio handia du denontzat. Pellok behin eta berriz esan digu “nik ez nuen inoiz pentsatuko hau egingo nuenik eta begira nora iritsi garen”. Egindakoak Pello asetu du eta, noski, polita izan da berarentzat.

A: Bai. Lehendabizikoz ikus-entzunezkoaren zirriborroa bidali genionean mozketarik gabe, oso hunkituta egon zen. Uste dut bere militantzia politikotik eskaini zela “sukalde lana” egitera. *Troskoa* da Rubio eta ohituta zegoen boluntario lana egitera. Orduan, nik uste dut berak bitartekari lanak egin zituela militantzia politikotik eta ekarpen bat egin ahal zuelako. Horrela, bi lagun elkartu zituen -Jesus Eguiguren eta Arnaldo Otegi-, etxea jarri zuen, erreka duak egin zituen... Konfiantzazko pertsona izan zen. Azkenean, bere bizitzako hainbeste denbora horretara eskaintzea elkarrizketa horiek aurrera atera zitezen... Konpromiso itzela da.

Aurre-lanketa handia ere egingo zenuten.

E: Ez pentsa. Erreza izan da. Pellorekin pare bat alditan elkartu ginen, konfiantza sortu eta gutxinaka denari forma emateko.

A: Guk garbi utzi genion Pellori ez genuela inongo dirurik irabazi edo morboa bilatu nahi. Bera egindakoarekin gustura gelditzea nahi genuen.

Memoria jasoketa bat, azkenean.

E: Memoriaz etengabe hitz egiten gabiltzan garaiotan bere bizipenak jaso nahi genituen. Zeren eta hori ere bada memoria, ez? Garrantzitsua iruditzen zait aipatzea etsipenetik hitz egiten dela askotan. Badirudi ezin dela ezer egin. Gauzak txarto dabiltzala, baina ezin dugula ezer egin. Niretzat liburua eta ikus-entzunezkoa irakaspenak izan dira. Gure txikitasunetik zenbat gauza handi egin ditzakegun erakusten digun irakaspena. Pellok bere txikitasunetik eskaini zuen baserria, berakatz zopa mahai batean, eta oso emankorra izan zen proiektu bat hasi zuen.

A: Bakoitzak era batera biziko zuen gai hau. 2000. urtearen inguruan hasi zen ezagutarazten Txillarren elkarrizketak egin zirela. Urte horietan, jada, gauza asko landuta zeuden. Bide asko zabalik: Espainiako Estatua ETArekin negoziatzen zebilen Norvegian, alderdi politikoak ere nahiko bideratuta zeuden... Loiolako elkarrizketak etortzen zaizkit burura. Loiolaren inguruan ere egin izan dira lanak. Txillarrekoa lehenago izan zen. Orduan, argi dago isilean lan asko egin izan dela. Atzera begira jarrita, duela 25 urte... Oso urte gogorak izan ziren haiek.

E: Pentsa, Txillarren elkarrizketak hasi zirenean ekintza armatuak, heriotzak, atxilotetak, ilegalizazioak, dispertsioa... zeuden. Elkarrizketa horiek bidea ireki zuten adibidez, ETaren desagerpenerako, dispertsioaren bukaerarako, alderdien legalizaziorako... Huskeria ematen du, baina ostras! Ez da gutxi. Eta hori da, oinarriz, Pellori okurritu zitzaiolako. Pelloren alea oso garrantzitsua izan zen.

Liburua eta ikus-entzunezkoa aurkezteko momentua da orain.

A: Dokumentala herriz herri aurkeztu eta osorik proiektatuko dugu eta, era berean, herritarrei liburua erosteko aukera eskainiko diegu. Urriaren 7an egingo dugu liburuaren aurkezpena Donostiako Elkar dendan. Urriaren 10ean, berriz, dokumentala estreinatuko dugu Elgoibarko Musika Eskolan. Urriaren 14an estreinatuko dugu dokumentala Eibarren, 18:30ean Portaleko areto nagusian. Ermuan ere izango gara, urriaren 22an, 18:30ean Lobiano Jauregian. Aurrerago herri gehiagotan ibiliko gara, seguru.

Bada herritarrei helarazi nahi diezuen mezurik?

E: Pertsona modura, gaitasuna dugula denok txikitik eragiteko. Etsipenean jausi barik, beti dagoela zerbait egiteko. Norberak bere ekarpena egin dezake. Batzuetan oso urruti iritsiko gara, Pello moduan, eta beste batzuetan eragingo dugu gure ingurutxo txikian. Baina beti dago zeregina. Eta gure aleak balio du. Hau da gure alea (barreak).

A: Euskaldunok beti sukaldea aipatu ohi dugula, eta sukaldea janarekin lotzen dugu, baina mahai inguruan berba egitea, ezberdintasunak albo batera uztea eta aurrera egitea... Batzuetan pila bat kostatzen zaigu gure desberdintasunak atzean uztea (egoak, politikak, boterea...). Baina, bitartean, badabil norbait sukalde lana egiten eta eskerrak. Eskerrak norbaitek hartu zuen konpromiso hori gauzak isilpean egiteko, horrek zekarren arrisku guztiekin.



“Etsipenetan jausi barik, beti dago zerbait egiteko. Norberak bere ekarpena egin dezake”

“Pila bat kostatzen zaigu gure desberdintasunak atzean uztea. Baina eskerrak bitartean norbait badagoen sukalde lana egiten”



ENRIKE SOSOLA

Babian

Leongoak dira Estela eta Antolin, estimu handiko bi adiskide aspaldiko. Biak ala biak umetan etorriak edo ekarriak Leongo iparraldeko bi herri txikietatik, La Bañeza eta Omaña eskualdetakoak, hurrenez hurren. Orain erabat eibartartuta daude baina, urtero, abuztuan, jaioterrira joaten dira oporrak pasatzera. Aurten, baina, Eibarrera itzuli behar izan ziren nahi baino lehenago, larri, oporraldia bertan behera lagata. Sute-mehatxuaren kezka gehiegizkoa izan zen.

Kasualitatez, inguru horretan pasa ditugu astebeteko oporrak, Babia izeneko eskualdean. “Babian egon gara” bai, suteak indarrean egon diren garai-garaian gainera. Eta goizero jaikitzean honetxek: ke-gandua, eguzki gorria, ke-usaina. Pentsa: itzultzeko egunean kanpin-denda kedar beltzak estali zigun.

Nik neuk ez nuenugarrik ikusi, baina txundituta geratu naiz hango paisaiaren ederraz, handitasunaz, eta abandonoaz. Era berean, harrituta sute handi horien dimentsioak sortu duen ezusteagatik. Esan nahi dudana da suak zizelkatutako paisaia dela Leongo mendietakoa. Suzaleak diren landareak gailendu dira mendeetako kudeaketa jakin baten ondorioz. Neguko sua erabili dute bertako biztanleek basoa “nerabezaroan” mantentzeko, belardi-sastrakadiari eusteko: euren burua betikotzeko sua erakartzen duten landare gogorrak.

Halabaina, suaren kultura milurtekoa desagertu da paraje horretan. Landa-eremua hustu da, edo dute. Nekazaritza-ganaderitzaren ordeztasuna eta turismoaren dirua errazago doa udalerrir txiroetara. Su-usadioak galtzearen ondorioz, erregai izugarri metatu urtez urte eta 6 belaunaldiko sute erraldoi kontrolbakoak hedatu dira. Hauen bero-indar demasak landaredi sukoa bera ere akatzen du, lur emankorra babesgabe utziz, erosio eta euriteen mende. Hondamendia. Berba aproposagorik bada gure euskerazkoa baino?

Gure mendiak nanoak dira hangoen aldean. Baina badute antzekotasunik, besteak beste gure landa eremuaren abandonoagatik gailendu den sastrakadiaren nagusitasuna. Bi esatearren: Ermua-Amañako mendi malkarra eta Urko mendia arrisku biziko bi zonalde dira. Bihar, etzi edo etzidamu erreko dira, bai ala bai, interbenitu ezean. Nola? Erantzuteko hausnarketa eta ikerketa behar dira, arazoak ertz ugari dituelako, eta planifikazioan asmatzeko gero. Izan ere, gai honetan lo, ilargian, izarretan gaude oraindik, “babian”.

**“Ermua-
Amañako mendi
malkarra eta
Urko mendia
arrisku biziko
bi zonalde dira.
Bihar edo etzi
erreko dira,
interbenitu
ezean”**

Bihar, IRAILAK 27, ...eta kitto! Jaia ospatuko dugu Ei-barren ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Beti bezala, jai giroan eta herritarrekin batera, euskara erdigunera eraman eta elkarrekin musikaz zein sagardoaz gozatzeko aukera paregabea izango dugu. Sagardo-dastaketa soil bat baino gehiago eskaini nahi dio ...eta kitto!-k herriari: euskal giroa sustatu, euskaraz berba egiteko espazioak eskaini eta herriko giroa piztu nahi baitu elkarteak.

Sagardoa egiteko prozesua bertatik bertara ezagutu nahi duenak dolarea izango du ikusgai (sagararak prentsatu eta ekoizteko tresna) eta, nola ez, kirkoketarekin sagarrak txikitzeo aukera izango da. Haurrentzako eskulan-tailerra ere izango da.

Musika Eskolako ikasleek eta Asier eta Kike txalapartariak girotuko dute goiza musikarekin, eta, iluntzean, txarangaren laguntzarekin, erdigunea ez ezik, gainerako kaleak ere euskaraz beteko ditu ...eta kitto!k.

AURTEN ERE EUSKARAZ DASTATU

NOIZ_ 12:00 -15:00 / 18:30-20:00

ondoren: "**Latuna Bando**" txaranga

NON_ Untzaga plazan

ZENBAT_ **Tiketa 10 euro** (edalontzia + zapia + pintxoak)

2 euro: Pintxoak soilik

SAGARDOTEGIAK_ Lizagasar, Bereziartua, Oiarbide, Saizar, Juaristi Txiki

ZOZKETA_ 20:00 ...eta kitto! rifak

(2 gau paradore batean 2 lagunentzat).

LEHIAKETA_ Bidali argazkia Instagram bidez, @gatzekitto etiketatu eta bi lagun izendatu.

Saria: Sagardo lotea.

HERRI- TARREN ALEAK EUSKARA- REN ALDE

Ehundaka lagun bilduko dira Untzagan bihar sagardoa euskaraz dastatzeko asmoz. Ohiko helburuei eutsiko die jaiak: euskal giroa sustatzea, euskaraz berba egiteko espazioak sortzea, herriko giroa piztea, eta, nola ez, ...eta kitto! Euskara Elkartea ikustaraztea. Aldarri horiek gainean, ez dira gutxi jaia aurrera ateratzeko eskaintzen diren herritarrak. Horien artean daude Edurne Uzkudun eta Idoia Hermosa boluntarioak. Hamar urte inguru daramate urtero-urtero plazan sagardoa zerbitzatzen.

Zer datorkizue burura ...eta kitto! Jaia aipatzerakoan?

IDOIA: Egun berezia dela guretzako ere bai. Urtero-urtero gordetzen dugu data boluntario moduan etortzeko, ...eta kitto!ri laguntzeko eta euskararen alde egiteko.

EDURNE: Iruditzen zait ekintza polita dela euskararen alde herri mailan lan egiteko. Boluntario gisa, kasu honetan. Euskararen inguruan ondo pasatzeko eta euskaraz egiteko jaia da.

Zenbat urte daramatzazue boluntario lanean?

IDOIA: Ba ez dakit, hainbeste dira... Hamar bat urte bai behintzat.

Zein izan da zuen ardura urte hauetan?

IDOIA: Gure lana beti izan da berdina: goizean Untzagara etorri, falta dena muntatzen lagundu, sagardoak zabaldu eta uretan ipini. Eguerdiko hamabiak aldera jendea hurbiltzen hasten denean ongietorriarekin batera zerbitzatzen hasi ordubiak arte. Eta arratsaldean, seiak aldera berriro etorri, sagardoa



ELKARRIZKETA OSOA



**Azkenean,
jai hau ondo
pasatzeko
momentua da,
baina baita
euskararen alde
egiteko aukera
paregabea ere.**



zerbitzatu, dena amaitzean mahaiak jaso, lurrean egoten den zikinkeria guztia batu...

Lana da, baina merezi du.

IDOIA: Bai, lana da. Ordu asko dira, pisuarekin ibiltzen gara... baina gus-tura egiten dugu.

EDURNE: Bai, nekatuta amaituta ere, gustura egiten dugun lana da.

Idoia: Eta disfrutatzeko aukera ere izaten dugu!

EDURNE: Bai. Zerbitzatzen gaude-nean ere harreman ona izaten dugu albokoekin, beti uzten dugu mahai azpian botilatxo bat ezkutatuta az-kenengo orduan denon artean par-tekatzeko... Oso giro polita sortzen da boluntario guztien artean.

Euskaraz hitz egiteko aukera pa-regabea da gainera.

IDOIA: Bai, zalantzarik gabe! Ho-rrelako ekintzen bitartez, euska-raz hitz egiteko ohitura hori ku-tsatu daitekeela uste dugu.

EDURNE: Gaur egun gaztelania asko entzuten da eta zerbitzatzen gabiltzanoi erdaraz egiten digute.

IDOIA: Bai. Askotan basoa mahai gainean uzten digute, guk haiei begiratu, eta "Zer?". Besteak eran-tzun: "Dos sidras"... Eta guk: "Bi sagardo, mesedez". "Kaixo", "egun on", "arratsalde on"... beti ibiltzen gara gazteak bazilatzen. Horrela beste harreman bat lortzen dugu eta euskaraz hitz egiten digute.

Hala ere, seguru tabernetan ber-din eskatuko dutela. Gure jarre-rarekin zerbait egiten dugula uste dugu.

EDURNE: Ezin dugu esperan-tza galdu.

Azkenik, zein mezu helarazi nahi-ko zenukete?

EDURNE: ...eta kitto! badela Ei-barren euskararen alde egin izan duen eta egiten duen elkarte, eta horren alde egiten jarraitu behar dela. Azkenean, jai hau ondo pa-satzeko momentua da, baina baita euskararen alde egiteko aukera paregabea ere. Ez da bakarrik sa-gardoa edatera etortzea, euskara-ren alde ere etor daitezela.



1997an lehenengo
aldiz arratsaldean
antolatzen hasi zen.

1998



1993

-ko azaroaren lehen ekin zion
...eta kitto! Euskara Elkarteak
Sagardo Eguna antolatzeari.
Untzagan egin zen, eguerdian.
Lehenengo Sagardo Egun
haiek euskararen aldeko
konpromiso garbia zuten
bazkideen topagune ziren.
Euskara elkarteak ikusarazi eta
euskararekiko sentimendua
aldarrikatzeko beharra
asetzeko balio zuen jaiak.

Sagardo Eguna gehienetan Untzagan egin da.
Hala ere, 1998 eta 1999an, Udaletxeko obrak
zirela eta, Toribio Etxebarria kalean egitea
erabaki zen.
Bestalde, aurrerago, urriko lehen larunbateko
Sagardo Eguna Toribio Etxebarria kolapsatzen
hasi zen eta Untzagara pasa zen, jubiletxe ondora.
Urte horietan guztietan gizartea eboluzionatzen
joan zen: euskararen normalizaziorako
legislazioa sortu zen, ikastolak publikatu ziren
eta administrazioan lanpostu jakin batzuetan
euskara eskakizunak bete behar ziren, besteak
beste.

SAGARDO EGUNETIK

...eta kitto! JAIRA



2003



Orokorrean Sagardo Egunean eguraldia gure alde izan badugu ere, izan dira eguraldi txarreko egunak ere: 2003 eta 2005. urteetan, esaterako.

2011



2009



2009. urtean, lehenengo aldiz, egun osoko ekitaldia egitea erabaki zen, Oreretan egiten den Sagardo Egunekeo esperientzia gertutik ezagutu ondoren. Aldaketa nabarmenak egin ziren urte horretan; esate baterako, sagardoa egiteko erabiltzen diren tresnak ikusteko aukera izan genuen. Urteak aurrera joan ahala, helburua ez zen aldatu: euskara plazara eramatea. Hurrengo urtean, 2010ean, sagar-batzea irudikatu zen.

2011n Gorenak Sagardoak markako lagunekin elkarlana hasi zuen ...eta kitto! Eukara Elkarteak. Urtero berritasunak sartzea da helburua. Urte hartako berrikuntzak: sagardoari buruzko erakusketa eta sagar kata (Sagardo Eguna baino egun batzuk lehenago); selfie-a eta Eibar- Real Madrid partidurako sarreraren zozketa, egunean bertan.



2024

Hausnarketa aldi baten ondoren, 2024. urtean Sagardo Eguna ...eta kitto! Jaia bihurtu zen. Asmoa: sagardoari protagonismoa arintzea, arreta kolektibo euskaltzalean jarritz.



Covid 2019 pandemiaren ondorioz, bi urteko geldialdia izan zen: 2020an eta 2021ean ez zen egin.



2025

Sorreratik testuingurua aldatu bada ere, euskararen inguruko sentimendu kolektiboa sustatzen dihardu ...eta kitto! Jaiak.



ELKARRIZKETA OSOA



AINTZANE AGIRREBEÑA •
eta kitto! Jaian omendua

“Inoiz ez dut espero izan horrelako omenaldirik jasotzea, oso pozik jartzen nau”

Biharkoa egun berezia izango da Aintzane Agirrebeñarentzat, bera izango baita aurtengo ...eta kitto! Jaian omendua.

Euskal filologian lizentziatua, Badihardugu euskara elkartearen koordinatzailea da 2004az geroztik eta Eibarko euskararen inguruko hainbat proiektutan parte hartu du. Gainera, lotura berezia du jai honekin, panderoa jotzen egon baita bertan hainbat urtetan.

...eta kitto! Jaian omendua izango zara. Nola jaso duzu aitortza? Lehenik eta behin, sorpresa handiarekin. Inoiz ez dut espero izan horrelako omenaldirik jasotzea, benetan. Oso pozik jartzen nau. Azken finean, lan eta lan zabiltza, baina ez dakizu horrek emaitzarik duen ala ez, eta ahalegin hori eskertzen dela ikustea nik neuk ere eskertzen dut.

...eta kitto! Euskara Elkartearekin lotura estua duzu, ez bakarrik euskararen inguruan lan egiten duzulako, baizik-eta hainbat urtetan Badiharduguk eta ...eta kitto!-k Urkizuko egoitza partekatatu genuelako. Zelan gogoratzen dituzu sasoi horiek?

Urkizun geundenean, normalean, Badihardugutik ni bakarrik egoten nintzen gure lokalean; beraz, esan daiteke ...eta kitto!-koak nire lankideak zirela. Ondo-ondoan egon

izan gara eta harreman estua eduki dugu. Urteak pasa dira eta obrak egin dira egoitzan. Zelako aldaketa! Askoz hobeto ikusten dut lehengoarekin alderatuz (barreak). **Gaur egun, Badiharduguk Markeskua jauregian du egoitza. Nolako orainaldia bizi du elkarteak?**

Egia esan, lanik ez zaigu falta. Jendeak galdetzen digu ea badugun lanik eta bai, lana bai, baina diruarena beste kontu bat izaten da. Beti borrokan ibili behar izaten gara dirua handik eta hemendik lortzeko. Nekagarria da hori eta batzuetan erre egiten zaitu dirulaguntzengatik borrokan ibili behar izateak. Bestela, proiektu pila batekin gabiltza eta elkarte martxa onean dabil.

25 urtetan proiektu asko garatu ditu Badiharduguk. Atzera begirajarrita, zer pentsatzen duzue?

Egia esan, egunean eguneko la-

nak ateratzen badugu nahikoa lan eta ez dugu denborarik hartzen ez atzera ez aurrera begiratzeko (barreak). Proiektu batzuk nahiko potoloak izan dira, adibidez Ahotsak. Poza ematen du jendeak proiektu hori ezagutzea, asko zabaldu da. Agian jendeak Badihardugu ez du hainbeste ezagutzen, baina Ahotsak bai.

Ez duzue aurrera begiratzeko denbora askorik, baina nola ikusten duzu euskararen etorkizuna Eibarren?

Orain ez naiz Eibarren bizi eta ez dut hain gertutik bizi bertako egoera. Azkoitian bizi naiz eta beti eduki izan du herri euskaldunaren fama, eta oraindik ere bada, baina lehen Eibarren ikusten nituen gauzak ikusten ditut bertan eta kezagarria da. Badakigu Eibarko egoera ez dela zoragarria, eta Azkoitian egoera hori ikusten ari naiz.

“Bertso-saio elektronikoa Eibarren estreinatuko dute urriaren 3an”

MAIALEN BERGARA • Hankamotxak bertso-eskola



Lanku Kultur Zerbitzuen eta Eibarko Hankamotxak bertso eskolaren eskutik bertso-saioa egingo da urriaren 3an, barixakuan, 22:00etan Errebal Plazan. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, berezitasun eta berritasun batzuekin etorriko zaizkigu aurrean. Izan ere, ITZ4L1 3T4 P1ZTU izenburukoa bertso-saio elektronikoa izango da, eta ikuskizunaren estreinaldia egiteko Eibar aukeratu dute.

Zertan datza bertso-saio elektronikoa? Nola azalduko zenioke ez dakien bati?

Guretzat ere zerbait berria eta ezezaguna da. Lankuk ekoiztu duen proiektu berria da, urriaren 3an Eibarren estreinatuko dena. Beraz, denontzat ere izango da sorpresa. Dakiguna da bertan lehen aldiz uztartuko direla bat-bateko bertsolaritza eta zuzeneko musika elektronikoa, bertso-doinu tradizionalak musika elektronikoaren bidez interpretatuz eta musika elektronikoaren doinuak bertsotara ekarri. Hau da, bertsolariek doinutegi berri eta birmoldatu baten gainean inprobisatu beharko dute musika elektronikoaren doinuak bertso-neurrietara ekarri, baina bertso-doinutegi tradizionalaren ondarearen parte diren doinuak ere bertsionatuko dira musika elektronikoaren bidez. Ohiko bertso-saioen esentziari eutsiz, zerbait ezberdina eta berritzailea ikusiko dugula uste dut.

Nondik sortu da saio elektronikoa?

Esan bezala, Lankuk kudeatzen duen proiektu berri bat da, Eibarren urrian estreinatu eta Euskal Herriko hamaika txoko ezberdin ezagutuko dituen. Ideia eta zuzendaritza artistikoa Manex Pagola, Libe Goenaga eta Aner Peritzena da. Hiru gai-emaez, hamaika

bertsolariz eta hiru musikariz osatutako taldea sortu dute, eta asmoa da bertso-saio bakoitzean txandakatu joatea, leku bakoitzean taldea osatzen duten kide ezberdinek parte hartzea.

Nor izango dugu bertsotan? Eta nor gai-jartzaile gisa?

Datorren urriaren 3an Eibarren egingo den bertso-saio elektronikoan Haira Aizpurua, Haizea Arana, Julio Soto eta Oihana Bartra izango ditugu kantuan, Manex Pagola eta Libe Goenaga musikariek lagunduta eta gaiak ematen Idoia Anzorandia arituko da.

Hankamotxak eskolatik zer espero duzue saio honetatik?

Hankamotxak-en gogotsu gaude zita honetarako, horrelako proiektu bat gurean estreinatzeak ilusio berezia egiten digu eta dagoen kartelarekin benetan ederra izango dela uste dugu. Jende guztia animatu nahi dugu hurbiltzera, benetan plan bikaina delako eta Errebal Plazia jendetz lepo ikustea beti delako pozgarria guretzat, are gehiago horrelako ikuskizun bat izanda. **Ikasturteari begira, zer antolatu duzue Hankamotxak Bertso Eskolatik?**

Azken ikasturteetan ez da erraza izaten ari Eibarren bertso-eskolen kontua; izan ere, ez dago izena eman



nahi duen jende nahikorik. Gaur gaurkoz umeen bertso-eskolarik ez dago, nahiz eta hamaika saiakera, motibazio saio, eta abar egin ditugun, eta helduena ere ez dago bere momenturik onenean. Noizbehinka batzen gara aritzeko, baina ez modu konstantean. Horregatik, hemendik bertso munduan aritu nahi duen edonor animatu nahi dugu hurbiltzera edo gurekin kontaktuan jartzera, izan ume, nerabe zein heldu, inoiz ez da berandu hasteko!

Hala eta guztiz ere, Hankamotxaketik argi daukagu bertsogintza herrian zehar hedatzen eta, ahal dugun heinean, eskaintza egiten jarraituko dugula, izan bertso-eskola zein bestelako bertso-saioen bidez.

Bertso saioaren
informazioa





1. Gipuzkoako Emakumeen* Ibilaldia urriaren 19an

Gipuzkoako Mendizale Federazioak, Urdaburu Mendizale Elkartearen laguntzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, Gipuzkoako Lehenengo Emakumeen* Ibilaldi neurtua antolatu du urriaren 19rako. Errenterian egingo da eta 12 kilometroko ibilbide zirkularra prestatu dute, 330 metroko desnibelarekin.

Emakumeak Urdaburu Mendizale elkartetik irten-go dira (Juan de Olazabal kalea, 23), 09:00 eta 09:30 tartean, eta toki berera iritsiko dira Pontika eta Beraun auzoak, Kutarro, Bizarain, Aitzetako Txabalako trikuharria, Txirrita Maleo, Pontika, Koldo Mitxelena plaza eta Biteri kalea zeharkatu ondoren. Gainera, amaitu ondoren janaria eta edaria egongo da Urdaburu Mendizale Elkartean.

Ibilaldian parte-hartzeko 5 euro ordaindu beharko da urriaren 15a baino lehenago izena emanez gero, edo 10 euro egunean bertan apuntatuz. Horretarako, www.deporeibar.eus helbidean aurkitu daitekeen formularioa bete beharko da.

Berdintasunerako konpromisoa

2024ko urtarrilean onartutako Gipuzkoako Mendizale Federazioaren Berdintasunerako Planaren sarrikeran jasotzen den bezala, Gipuzkoako Federazioak “konpromiso argia du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde federazioaren eremu guztietan. Izan ere, tradizioz, mendizaletasuna eremu maskulinoa izan da, eta emakumeak ez dira bertara erraz iritsi. Gainera, genero bakoitzari sozialki esleitutako estereotipoek eta rolek baldintzatu eta mugatu dute emakumeen parte-hartzea”.

Konpromiso horren ondorioz, Berdintasun Kontseilua eratu zen, gehienbat emakume mendizaleek osatuta, eta talde horren lehen helburua aipatutako Berdintasunerako Plana sortzea izan zen. “Berdintasun Kontseiluak gaur egun ere lanean jarraitzen du hura gauzatzeko, eta antolatzen ari garen emakumei* soilik zuzendutako mendi ibilaldi hau Berdintasunerako planaren ekintzen barruan kokatu behar da”, diote Eibarko Klub Deportibokoek.



Artesanos Juantxok bikain hasi du Liga

Artesanos Juantxo Eibar Saskibaloi Taldeak joan den asteburuan hasi zuen gizonen seniorretako 1. mailako liga. Eibartarrek Donosti Dolphins jaso zuten Ipuruan eta emaitza bikain argia lortu zuten, 61-48, garaipena eskuratu.

Garaipen horrekin, Eibarko Saskibaloi Taldeak denboraldiko

lehen bi puntuak eskuratu zituen eta sailkapenaren gorenean kokatu zen, lortutako eta jasotako puntuen artean berak duelako alderik handiena.

Hurrengo jardunaldian, Artesanos Juantxok Oñatin jokatu du Biotz Aloña Mendi K.E.-ren kontra, bihar, 18:00etan.



Kamiseta berriak indarra eman diete Eibar Eskubaloiko taldeei

Barixakuan kamiseta berriak aurkeztu zituen Eibar Eskubaloia taldeak. Azken urteetan bezala, Hummel etxeak ekoiztu ditu elastiko berriak eta klubeko talde nagusiek modurik onenean estreinatatu dituzte asteburuan.

Lehen Nazional Mailako gizonen taldeak Barakaldo jaso zuen Ipuruan, zapatuan. Lehen jardunaldiarekin alderatuz, Fernando Fernandezek mutilek ez zuten azken unera arte itxaron behar izan garaipena lortzeko, baina lehia bizia izan zen, 28-25

markagailuarekin amaitu baitzen. Horrela, ligako bi jardunalditan bi garaipen lortu ditu Eibar Eskubaloiak.

Zilarrezko Ohorezko Mailako emakumezkoen taldeak, bestalde, Euskal Kopako partidua jokatu zuen Aiala Zarautzen kontra eta, eurek ere, garaipena lortu zuten, 30-25. Andoni Perezek zuzentzen duen taldeak bihar hasiko du liga Caja Viva Blendio Sinfín Santander taldearen aurka, Ipurua kiroldegian, 19:00etan hasiko den partiduan.

Bar Maren-ek lidergoan sendo jarraitzen du

Garajes Garcia eta Bar Maren taldeek lehia bizia izan zuten asteburuan futbol zaletuaren bigarren jardunaldian. Zazpi gol izan zituen partidua eta Bar Maren atera zen garaile, 3-4, Rodrigoren (2), Robertoren eta Ibrahimaren golei esker. Garajes Garciaeren aldetik, Sergio, Aitor eta Ander izan ziren goleatzaileak.

Garaipen horrekin, sailkapenaren lehen tokian jarraitzen du Bar Maren sei punturekin, Xania Taberna eta Malape Tabernarekin berdinduta. Hauen atzetik, Bergara Pneumatikoak eta Garajes Garcia hiruna puntu dituzte, eta puntu gabe daude Adahi Etxegi, Limpiezas Rueda, Baserri eta Kalaka Buenos Aires.

Hurrengo jardunaldian Xania Tabernak atsedena hartuko du eta honakoak izango dira beste partidua:

Zapatuan, 09:00etan, Malape Taberna – Kalaka Buenos Aires; 10:30ean, Adahi Etxegi – Baserri; eta domekan, 09:00etan, Limpiezas Rueda – Bar Maren; eta 10:30ean, Garajes Garcia – Bergara Pneumatikoak.

Jardunaldi Mikologikoen 25. edizioa egingo da urriaren 4an eta 5ean

Eibarko Klub Deportiboak Jardunaldi Mikologikoen edizio berria prestatu du, oraingoan hogeita bosgarrena. Urriaren 4an, zapatua, ikasleekin mendi irteera didaktikoa egingo dute Aranzadi Zientzia Elkarteko aditu batekin. Ondoren, bildutako aleak Errebal Plazan sailkatuko dituzte. Horrez gain, 11:00etatik aurrera, onddoen

zaletuek euren perretxikoak Errebal Plazako A eta B aretoetan lagatzen dituzketen hurrengo eguneko erakusketan.

Urriaren 5ean, 10:30etik 14:00etara, Errebalen, hurrek eta zaleek bildutako perretxikoak erakutsiko dira, eta, aldi berean, txanpien pintxoak dastatuko dira, bakoitzak gustuko duen edariarekin.





Emakumezkoen SD Eibar lehen garaipenaren bila Valentziara

F Ligan jokatzeko duen SD Eibarrek ez dihardu denboraldi hasiera ona izaten. Lau partidu jokatu ondoren, puntu bakarra du Iñaki Goikoetxeak zuzentzen duen taldeak eta azken-aurreko postuan dago sailkapenean. Atzetik du Levante UD, puntu bakarrarekin ere, eta hain zuzen ere, Valentziako taldea izango da eibertarren hurrengo aurkaria.

Granadaren aurka 3-1 galdu ondoren, Eibarrek aukera ona du sailkapenean arnasa hartzeko. Levanteren aurka ko partidua domekan jokatu da, 12:00etan, Buñolen.



Eibar Hiria Txapelketaren VI. edizioa jokatu da domekan Ipuruako anexoan

Ipuruako anexoak VI. Eibar Hiria Txapelketa hartuko du domekan, irailak 28. SD Eibar izango da lehiaketaren anfitrioi eta LaLiga Genuinen dabilzan inguruko talde nabarmenenek hartuko dute parte bertan: Athletic Club, Deportivo Alaves, Real Sociedad eta Osasuna.

Lehen partidua 10:00etan jokatu da eta azkena 12:00etan. Jardunaldia 13:00etan amaituko da, domina banaketarekin.



Ipuruan indartsu jarraitu nahi dute gizonezkoek

Ipuruan Real Sociedad B-ri irabazi eta gero, etxean beste garaipen bat lortzeko asmotan da Hypermotion Ligako SD Eibar. Horretarako ez du lehia erraza izango, sailkapeneko liderra hartuko baitu zapatuan, irailak 27, 18:30ean: A Coruña Deportivo.

Beñat San Josek gidatzen duen taldea 7. postuan dago sailkapenean, 10 punturekin, eta laura du Deportivo. Aipatzekoa da aurpegi ezagunak itzuliko direla Eibarrra galiziarrekin: Arnau Comas, Mario Soriano eta Juan Diego Molina 'Stoichkov' (azken hau denboraldi honetan bigarren aldiz, Granadarekin jokatu baitzuen 2. jardunaldian, abuztuaren 22an).



SD Eibar-en harrobiaren aurkezpena egin zuten martitzenean

Ipuruako futbol zelaia SD Eibar-en harrobiaren aurkezpen ekitaldia jaso zuen martitzenean. Bertan 13 taldeak aurkeztu ziren, 270 jokalaririk ingururekin. Horiei Futbol Eskolan izena eman duten 180 neska-mutilak gehitu behar zaizkie, guztira 450 futbolari baino gehiago trebatzen baitira Eibarrekin.



Bizikleta Eguna ospatuko da domekan adin guztietarako egitarauarekin

Domekan Bizikleta Eguna ospatuko da Eibarko Txirrindulari Elkartearen eskutik. Adin guztietarako laguntzat egokituko den egitaraua prestatu dute, 09:30ean hasita eguerdira arte, ekintza ezberdinekin.

Egitaraua 09:30ean hasiko da, mountain bike eta zikloturista martxarekin. Txirrindulariak 09:30ean irtengo dira Untzagatik eta 12:00etan Apalategin elkartuko dira, berriz toki berera itzultzeko.

11:00etan ibilbidea egingo da, Eibarko bidegorria ezagutzeko. Horretarako, Untzagatik irtengo dira, Mekolatik Amañara joko dute eta handik Untzagara berriz.

Ondoren, gaztetxoentzako zirkuitua jarriko dute. 11:30ean 8 eta 10 urte artekoentzat, eta 11:45ean 11 eta 12 urtekoentzat. Eta, ekin-tzekin amaitzeko, 12:00etan, gaztetxoentzako zirkuitua jarriko dute Untzagan.

Horrez gain, 0 eta 8 urte arteko umeentzako gunea egokituko dute euren triziklo eta motorrak erabiltzeko.

Aitor Fernandez 16. izan zen El Vendrell-en

Joan den domekan, El Vendrell-eko 100x100 Triatloia egin zen eta JAZ Eibar Triatloi Taldeko Aitor Fernandez aritu zen bertan. Eibartarrak distantzia erdiko triatloian hartu zuen parte eta bikain ibili zen, 16. postuan amaituz (4:34:11). Zarautzen Bikote Mistoan Duatloi Herrikoia jokatu zen eta Eibarko taldeko Idoia Uruñuela eta Iñigo Marquez izan ziren parte hartzen.



Eskuz-binakako eta paleta-gomako partiduak

Gaur, 18:30ean hasiko den jaialdian, jubenil mailako Gipuzkoako Eskuz Binakako Txapelketa ko bi partidu jokatu dira: Urkiaga eta Del Rey Abantzuko (Zestoa) bikotearen aurka neurtzekoak dira, baina eskuko minarekin dabilta eta euren presentzia zalantzan dago; eta, beste partiduan, Varona eta Azpilikueta Hernaniko bikotearen kontra lehiatuko dira. Ondoren, Gipuzkoako Binakako Goma-Paletako partidu bat jokatu da: Amas eta Leturiaga Zarauzko bikotearen aurka.

Bihar goizean, 09:30ean, Gipuzkoako Binakako Goma-Paletako beste neurketa bat izango dugu eta, bertan, Osa eta Lombranañ Añorgako bikotearen kontra arituko dira. Ondoren, 11:30ean, Gipuzkoako Eskuz Binakako Txapelketan, Amuategi eta Gisasolak Billabonako Behar Zana klubeko bikotea izango dute aurrean.



Urki porrotarekin itzuli zen Beasaindik

2. jardunaldia jokatu zuen Oho-rezko Erregionaleko CD Urkik eta oraingoan ez zuen punturik eskuratu. Beasainen aurkako partiduan 3-1 egin zuen, Cobok sartutako golarekin. Taldeak gaur bertan izango du joan den asteburuko aho-zapore txarra kentzeko aukera. Zumaiaiko FT jasoko du, 19:30ean, Unben.



Dena prest dago Elgoibarren Kilometroak jaia ospatzeko

Urriaren 5ean Kilometroak jaiaren 49. ekitaldia hartuko du Elgoibarrek, eta aste honetan egin dute jaiaren aurkezpen ekitaldia Olatz Astigarraga Casañares Elgoibar Ikastolako lehendakariak, Iera Larrañaga Egiguren Elgoibar Ikastolako Kilometroak 25eko koordinatzaileak eta Aitor Elizaran Egidazu Kilometroak kultur elkarteko lehendakariak. Esan dutenez, “aurten ere, adin guztiei begirako egitarau bete-betearekin dator Kilometroak jaia”. Larrañagak azaldu duenez, hiru gunee eta azpiguine bat egongo dira, “adin guztietara zuzendutako ekintzekin eta ikuskizunekin: gazteentzat Erronka probak izango dira herri osoan zehar, txikientzat egur jolasak, puzgarriak, tailerrak, eskulanak, magoak, txarangak, elektrotxarangak, erraldoiak eta, nola ez, hainbat musika taldek kontzertuak eskainiko dituzte. Indarrak hartzeko eta jan-edanarekin hornitzeko guneak ere ez dira faltako”.

500 lagunentzako jangela frontoian

Horrekin lotuta, ikastolako frontoian 500 lagunentzako jangela prestatu da. Helduentzat, paella eta oilaskoarekin osatutako menua egongo da (18 euro), eta haurrentzat makarroiak eta oilaskoa (12 euro). “Txartelak egunean bertan, Ikastola gunean erosteko aukera egongo da”. Xehetasun guztiak Interneten, www.kilometroak.eus web orrian kontsultatu daitezke.

Antolakuntzak garraio publikoa erabiltzeko eskaera egin die jaira joateko asmoa dutenei, “tren eta autobus zerbitzu bereziak egongo dira eta”. Dena den, autoan doan jendearentzat sei aparkaleku egongo dira, eta Mintxetako aparkalekuan autokarabanentzako gunea ere prestatu dute.



Laster kaleratuko da Alberto San Emeterioren liburu berria

Arrakasta izugarria izan duen ‘La última copa’ eleberria urte honen hasieran kaleratu eta gero, Alberto San Emeterio eibartarraren ‘Donde duerme la memoria’ Eibar eta inguruan girotutako eleberri historikoak laster ikusiko du argia. Gurasoengandik seme-alabengana transmititzen diren askatasun-balioen bidezko bidaia egiteko gonbidapen irekia da liburua, eta egileak estilo hunkigarri eta gertukoa erabili du. Aurreko liburua bezala, hau ere egileak berak eman du argitara, eta erosi nahi duenak Fasprint inprentan (Ego Gain, 5) erosi ahal izango du, urritik aurrera. Nahi izanez gero, erretserbatu daiteke, 943 20 16 13 telefono zenbakira deituta, edo 688 687 385 WhatsApp zenbakira mezua bidalita. 14 euro balio du.



Bueltan dira Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak

Gaur ekingo dio ...eta kitto! Euskara Elkarteak Barixakuak Jolasian ekimenari. Txaltxa Zelaik hartuko ditu 17:00etatik 18:00etara 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzako jolasak. Hurrengo barixakuan, urriak 3, Torrekuan egingo dira, eta urriaren 10ean, berriz, Urkizuko parkean.



Urriaren 11n ospatuko da lehen Gazte Eguna Amañan

Amañako Jaietan euriarengatik bertan behera geratu ziren kontzertuak urriaren 11n egingo dira: Lendaris Muertos eta Modus Operandi taldeek auzoan joko dutela eta, egun osorako egitaraua prestatu dute Amañako Gazte Asanbladak eta auzoko Jai Batzordeak: 12:00etan txupinazoa bota eta, jarraian, poteo girotua hasiko da; 15:00etan bazkaria eta bingoa hasiko dira (bazkarirako tiketak 10 euro balio du, bingorako kartoia barne). Arratsalderako txokolate-jana eta DJ Hombre Orquestak girotutako arratsalde-pasa prestatu dituzte. Eta kontzertuak 22.30ean hasiko dira.



Urrian abiatuko da Musika Kluba, Martha Fields-ekin

Portalean hasi zen Musika Kluba Coliseo antzokian egiten da orain, baina asmoa hasierako berbera da: domeketan kontzertu txiki eta biziak eskaintzea. Urriaren 12an abiatuko da programazioa, Martha Fields taldearekin. Azaroaren 30ean Anna Duke arituko da. eta urteko azken saioa The Bo Derek's taldearena izango da, abenduaren 14an. Kontzertu guztiak 19:00etan izango dira, Coliseon, eta sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Keegan McInroeren folk eta blues doinuak gaur Zaizoin

Europar zehar egiten ari den biraren baitan antolatutako kontzertua emango du gaur Keegan McInroek, 20:00etatik aurrera, Zaizoi tabernan. Aurretik ere hainbatetan aritu izan da Eibarren, Ez Dok tabernan, baina gaurkoa izango da Zaizoi tabernan ematen duen lehen kontzertua. Texasko Fort Worth hirian bizi den idazle eta musikaria da Keegan McInroe. Trobadore zaharren bidetik, azken bi hamarkadetan mundu osoko errepide, baso eta hiriak zeharkatu ditu. Han eta hemen bizi izandako esperientziak eta ikasitakoa folk, country eta blues musikaren eraginarekin nahastu eta gero, istorioetan oinarritutako musika propioa sortu du.

Astelehenean hasiko dira kantu saioak Arrate Kultur Elkartean

Euskal kantu tradizionalak ikasteko saio irekiak eskainiko dituzte Arrate Kultur Elkartean ikasturte honetan ere, eta aste honetan egin da saioen inguruko xehetasunak lotzeko bilera. Bertan adostu zuten, kantu saioak hamabostean behin izango dira, astelehenean, 19:00etan, elkartearen lokaletan, eta lehen saioa datorren astelehenean, irailaren 29a, egingo da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 638 284 912 telefono zenbakira deitu.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

8		2	5		7			
	3		8					
				6	1		7	
		3			2	4		
	6	8				2	1	
		9	6			3		
	9		1	2				
					3		8	
			4		6	7		1

2	8	5	4	9	6	7	3	1
6	4	1	7	5	3	8	9	8
3	9	7	1	2	8	6	5	4
1	2	9	6	8	4	3	5	7
4	6	8	3	7	5	2	1	9
5	7	3	6	1	2	4	8	6
9	5	4	2	6	1	8	7	3
7	3	6	8	4	9	1	2	5
8	1	2	5	3	7	6	9	4

s
u
d
o
k
u
a

8	1	5	2	3	9	4	7	6
6	2	7	1	8	4	3	5	9
4	6	3	5	7	6	1	8	2
1	6	4	8	6	2	5	3	7
3	5	6	7	4	1	2	9	8
7	8	2	2	9	6	3	7	1
2	3	6	9	5	1	7	8	4
5	7	1	4	2	8	6	9	3
9	4	8	3	6	5	7	2	1

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

8		2	5		7			
	3		8					
				6	1		7	
		3			2	4		
	6	8				2	1	
		9	6			3		
	9		1	2				
					3		8	
			4		6	7		1

Lagundu satorraren
betaurrekoak bilatzen



Irailak 26 / Urriak 2

BARIXAKUA 26

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzako jolasak ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Dohainik. Txaltxa Zelai.

GRADUAZIO-EKITALDIA

18:00 Gipuzkoko Ingeniari-tza Eskolako Graduazio Eki-taldia. Eibarko Hezkuntza Esparruko Areto Nagusia.

IPURUAKO JAIK

19:00 Trikipoteoa auzoan. **20:15** Txupinazoa. **20:30** Kontzertua: CV (Caballos de Vapor). **21:45** Mugi Panderoa. **00:00** DJ Gorku eta Beato.



MUSIKA

20:00 Keegan McInroe (Texas Folk Blues) musikariaren kontzertua. Ez Dok-Zaizoi taberna.



ZAPATUA 27

IPURUAKO JAIK

09:00 Mendi-buelta (Arga-txatik abiatuta). **11:00** Salda eta txorizoa (Mogeleko patioan). **11:30** Herri-kirolak (Mogeleko patioan). **15:00** Bazkaria (Mogeleko patioan). **17:00** Bingo musika-tua. Umeentzako tailerrak (henna, trentzak, aurpegiak margotu, skate...). **22:00** Urkari. **23:30** EH Sukarra. **01:00** DJ-ak.

...ETA KITTO! JAIK

12:00/15:00 eta 18:30/20:00 "Dastatu gurekin, dastatu euskaraz", ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta: sagardoa, pintxoak, haurrentzako jolasak, musika... Ondoren, Latuna Bando Txaranga. Untzaga plaza.

KOMEDIA FEST

20:00 "Tu-Tum, Platz" umorezko bakarrizketa, Jon Plazaolaren eskutik. Euskaraz. 19 euro. Uni Eibar-Ermua antzokia.



SEXUBIZI-GUNE MOREA

00:00/03:00 Sexu-aholkularitza eta eraso matxisten aurkako babesgunea eskaintzen duen gunea. Untzaga.

DOMEKA 28

BIZIKLETA EGUNA

09:30 Mountain bike eta zikoturista martxa (irteera Untzagatik). **10:30** Izen-ematea. **11:00** "Eibarko bidegorria ezagutuz" ibilbidea, Untzagatik hasita. **11:30** Herri-barruko ibilbidea: bi buelta 8-10 urtekoentzat, hiru buelta 11-12 urtekoentzat. **12:00** Haurrentzako ibilbidea, Untzagan.



IPURUAKO JAIK

10:30 Toka eta igel-toka txapelketa, Ipuruako jubilatu etxearen eskutik (San Pio X.a eliza parean). **11:30** Txokolate-jana. Arku-tiro tailerra (Jazinto Olabe parkea). **12:00** Meza (San Pio X.a eliza). **12:00** Dantza erakustaldia Kaxaren eskutik (Jazinto Olabe parkea). **13:00** Bermutada, Ainhoa Arroitaik girotuta.

AGINAGAKO JAIK

11:00 Meza Nagusia, San Andres parrokiako abesbatzaren partaidetzarekin. **12:00** Hamarretakoa eta umeendako jolasak. **14:30** Paella-jan herrikoia. **17:00/20:00** Erromeria, Joselu Anaiaik taldearekin alaituta. **20:00** Kanpai-iraulketa. Aginaga.



ASTELEHENA 29

KANTU-SAIOA

19:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkartea.



EGUAZTENA 1

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondatei buruzko informazio-zerbitzua, Ikastenen eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

ERAKUSKETAK

Irailaren 26tik urriaren 12ra Arrate Kultur Elkarteko bazkideen erakusketa. Topaleku.

Irailaren 28ra arte Eli Egurenen margolanak. Untzaga gizarte zentroa.

Urriaren 19ra arte "Eskala eta zatiak" (Javier Balda) eta "Asmodun elementuak" (Ibon Aranberri). Portalea.

ZINEA COLISEO



“Maspalomas”
DRAMA
2025/Espainia/115’
Zuzendaria: José Mari Goenaga,
Aitor Arregi
Aktoreak: José Ramón Soroiz,
Nagore Aranburu, Kandido
Uranga, Zorion Eguileor
Zahartzaroa/Heldutasuna.
Homosexualitatea

1 ARETOA

- **27an**: 17:00 (VOSE)
- **28an**: 17:00 (VOSE)

ANTZOKIA

- **27an**: 19:45 (VOSE),
22:30 (VOSE)
- **28an**: 20:00 (VOSE)
- **29an**: 19:30 (VOSE)



“Mi postre favorito”
DRAMA. ERROMANTZEA.
KOMEDIA
2024/Irán/97’
Zuzendaria: Maryam
Moghadam, Behtash Sanaeeha
Aktoreak: Lili Farhadpour,
Esmaeel Mehrabi, Mohammad
Heidari
Zahartzaroa/Heldutasuna.

1 ARETOA

- **27an**: 19:45, 22:30
- **28an**: 20:00
- **29an**: 19:30



“Nadie 2”
AKZIOA. THRILLER. KOMEDIA
2025/Ameriketako Estatu
Batuak (AEB)/89’
Zuzendaria: Timo Tjahjanto
Aktoreak: Bob Odenkirk, Connie
Nielsen, Gage Munroe, Paisley
Cadorath
Mafia. Familia. Krimena

2 ARETOA

- **27an**: 17:00, 19:45, 22:30
- **28an**: 17:00, 20:00
- **29an**: 19:30



“Hartz-atzapar kanpamentua”
UMEENTZAKO. KOMEDIA.
ABENTURAK
2025/Espainia/98’
Zuzendaria: Silvia Quer
Aktoreak: Júlia Raya, Martín
Abello Sevillano, Anabel Alonso,
Elisabet Casanovas, Edu Soto
Abentura

ANTZOKIA

- **27an**: 17:00
- **28an**: 17:00

EZ GERATU GIDATIK KANPO!

688 62 15 35
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
Funeraria mugikorra

FUNERARIA MUGICA
Funeraria mugikorra

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Oraola, 27

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marques de Valdeispina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bibeo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **ANE!**
Hilaren 24an 5 urte
bete zenduaz
eta. Musu erraldoia
famelixaren partez.



Zorionak **NOA!**
Gaur 12 urte! Musu
haundi bat aitxitxa
eta amama, Luka
neba eta Danel eta
Aner lehengusuen
partez.



Zorionak **JARE!**
Bixar 8 urte
beteko dittuzu!!
Muxu potolo bat
etxekuen eta,
batez be, Maddiren
partez.



Zorionak **KEPA!**
Hilak 18xan 8 urte
egin zenduaz,
mutil haundi!!
Musu haundi bat!!!
Amama Edurnek
eta aittitta Josuk.



Zorionak **BIDANE!**
Potxola! 3 urtetxo,
neska haundi!
Patxito haundi bat,
batez be Randyn
partez.



Zorionak **AIUR!**
Gaur 6 urte! Segi
beti bezain jator!
Patxo eder bat
famelixa guztiaren
eta, batez be,
Maddiren partez!



Zorionak **JUNE!**
Domekan 8 urte
beteko dittuzu
eta. Musu pill
bat etxeko danon
partez.



Zorionak **ELENE!**
Bihar 11 urte! Musu
haundi haundi bat,
famelixa guztiaren
eta, batez be,
Juneren partez.



Zorionak **IZARO!**
Domekan 4 urte
beteko dittuzu!
Zure famelixakuak
asko maite
zaittugu, lurretik
ilargira!



Zorionak **PELLO!**
Martitzenian 11
urte! Ondo ospatu
lagunekin eta
famelixarekin!
Musu haundi bat,
batez be Txomin
eta Elixen partez.



Zorionak **JOL!**
Igandian ondo
ospatu genduan
zure 4. urtebetetzia
famelixakin!
Segi beti bezain
alai! Asko maite
zaittugu!



Zorionak **LUKE!**
11 urte egin
zenduaz
astelenian eta.
Besarkada
erraldoia, politxori!



Zorionak **PAULA eta MARTINA,**
eguaztenian 6 urte egin zenduaz eta!
Milla patxo etxeko danon partez.

Izadi
LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORAK ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

**PUBLI
RESA**
osagarrien pertsonalizazioa

merchandising
serigrafia
lanerako errorea

www.publiresa.com
943 701 497 / 687 879 667
publiresa@publiresa.com

Armagin 3-5 beheak

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
• Atiko txikia, espazio baka- rrekoa, alokatzen da Eibarko erdialdean urritik aurrera. Igo- gailuarekin. Deitu 15:00etatik aurrera. Tel. 686829613.
2. MOTORRA
2.1. Salgai
• Honda cb600f (Hornet) moto- rra salgai. 600ekoa den arren 35 kwra mugatuta dago. 1999koa, 69.000km. Egoera ezinhobean eta ITV egunean. 2.000 euro. 688857786. Jon.
3. LOKALAK
3.1. Salgai
• Garaje itxia salgai San Pion. 25 m2. Prezioa adosteko. 688 84 72 37 / 656 75 64 70 • Elikagai-denda traspasatzen da Urki auzoan, gaixotasuna- gatik ezin baita atenditu. 30 urte daramatza dendak au- zoan eta erreformatuta dago, hasteko moduan. 655026699.

4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da persona nagusiak zaintze- ko, tabernako zerbitzari eta etxeko garbiketa egiteko prest. 660140707. • Mutila eskaintzen da garbika- ta lanetarako edota nagusien zaintzarako. Asteburuetan edota orduka. Baserriko lanak egiteko ere. 635 94 46 02. • Emakumea eskaintzen da per- tsonen zaintzarako, Interna moduan. Esperientziaduna eta erreferentziekin. 667742118.

• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Aste- buruetan. Ziurtagiriarekin. 642757640 (Angela). • Neska eskaintzen da pertso- nekin, tabernan edo garbiketa la- nak egiteko (titulazioarekin). 633101852 • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko orduka. Titula- zioarekin eta esperientziare- kin. 667070292 • Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintze- ko eta etxeko lanak egiteko. 672827386. • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurta- giriarekin). Erreferentziak. 613287661. • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 631418130. Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 602040399. Veronica. • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta gar- biketa lanetarako. Interna. 687408348. • Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintze- ko. 672965658

4.2. Langile bila
• Zerbitzaria behar da astebu- ruetarako Kultui tabernan. Euskaraz jakitea baloratuko da. 943208434. Aitor.

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• Gitarra, baxu elektrikoa eta ukelele klaseak. Armonia eta konposizioa. Musikene-ko irakasle tituladuna. basseak@ yahoo.es 652217737.

• LH, DBH eta Batxilergoko kla- se partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia. • Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko tal- deak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe. • DBH, Batxilergo eta Uniber- tsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko auke- ra. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK
6.1. salgai
• Gurrildun aulkirako motorra edota ailkia bera ere salgai. 619350803 (Arrate) • Butaka-relax elektrikoa salgai. Nahiko berria, marroia, antez- koa, ukitu oso leuna. Oso ego- kia mugikortasuna mugatua dutenentzat. 250 euro. 666 982 621 jarriand@hotmail.com

6.2. Eman
• Urtebeteko txakur emea emango genuke, ezin dugula- ko zaindu. Spaniel bretai- niar nahastutako arrazakoa. Txertatuta eta txiparekin. 686540051. • Bi urteko txakurra opari- tzen dut. Mastin arrazakoa.. 696655908.

6.3. Aurkitu
• Arrateko bidean eskumuturre- koa aurkitu dut. Zurea bada, deitu 658714437 telefonora. 686540051.

6.4. Bestelakoak
• Baserria erosiko nuke Eibarren edo inguruan. 688 642 761. Asier.



osasun gida

Medikuntza Estetikoa



abontza
clinica estetica

Medikuntza	Kirurgia
• Dermatologia estetika	• Betezalek, belarriak...
• Aurpegia gestetizea	• Liposukzioak
• Beizeak	• Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - beheak 943 206 044

ANE VESGA
CLINICA MEDICINA
ESTETICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuak

Arragueta 2bis B, Entreplanta A.
623 003 251 - info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM




**RS Medikuntza
Estetika**
Maria Rosmina Soliz
Salvatierra DOKTOREA

CLINICA DENTAL Y
MEDICINA ESTETICA RS 943 90 30 36 / SAN JOAN, 7

Okulistak



Recalde
Clinica Oftalmologica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 224/13

Piazza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kalegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kalegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kalegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

**Maidor
Lopez
Etxeberria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kalegiatu zbkia.

Psikologoak

GONZALEZ DE MENDIBIL

**PSIKOLOGIA
PSIKOTERAPIA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO
ARRETA PSIKOLOGIA

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

**Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa**

Oscar Mondragon Lili
GOMEZ ETA ARRAZALDEZ

Urkizu. 13 - beheak
Tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



943-206776



eta kित्तो!

J A I A

IRAILAK 27

UNTZAGA

PLAZAN

12:00-15:00

18:30-20:00

ONDOREN

**“Latuna
bando txaranga”**

**2
0
2
5**

**DASTATU GUREKIN,
DASTATU EUSKARAZ**